

XXI. menderako erabakiak Donostian



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
DONOSTIAKO UDALEKO ZINEGOTZIA

Duela hogeitun urte antolatu zen *Bai Euskarari* ekimena, entitateak bultzatzeko beren erakundeetan euskararen erabilera zabalatzeko konpromisoak hartzera. Altza izan zen Euskal Herrian abiatu ziren esperientzia pilotuetako bat eta udalaren babesa izan genuen. Datorren urtean, antzeko ekimen bat abiatuko du Intxaurren auzoak, udalaren babesarekin hori ere.

Hogei urteotan, euskararen ezagutza handitu da Donostian. Gainera, erakundeetan ere euskaraz gaituta dauden langileak askoz gehiago dira. Gauzak horrela, udalak eredu izan behar du, herriarrok egiten ari garen ahalegina lagundu behar du, gurekin batera joanez, eta gure hizkuntza aukeratzeko askatasuna bermatuz. Areago, euskararen egoerak eskatzen du erakundeak aurreratuago joatea, proaktibo eta eragile izatea.

Hemeretzi sail ditu Donostiako Udalak eta horietatik hamahirutan lanpostua guztietan (% 75 baino gehiago) derriortasun-data ezarrita dago. Areago, udal langileen %72 euskaraz gaituta dago bere lanposturako. Egoera horretan 86/97 dekretuak ahalbidetzen du

Hogei urteotan, euskararen ezagutza handitu egin da Donostian. Gainera, erakundeetan ere euskaraz gaituta dauden langileak askoz gehiago dira. Gauzak horrela, udalak eredu izan behar du

sailak euskarazko atal izendatzea, euskaraz hutsez jarduteko aukera izan dezaten. Jakina, horretarako, hizkuntza gaitasunaren baldintzaz gain, arduradun politikoak erabaki hori hartzea behar da. Bada, aurreko agintaldiaren amaieran, 2018-2022 plangintza onartu zuen Udalak, eta lehendik zeuden euskarazko lau sailei beste bat besterik ez zien gehitu Eneko Goiaren gobernuak. Areago, agintaldi berriko lehen erabakien artean euskaraz mintzatzeko gai ez den arduradun politikoa aukeratu zuen euskarazko gisa izendatutako sail horretarako. Zo-

rionez, egoera birbideratzea lortu da, LAB sindikatuaren salaketari esker.

Aurrekoaz gain, ez dira seinale batere ona agintaldi hasieran udal gobernu berriak hartu dituen zenbait erabaki. Batetik, udan 95 udaltzain eta mugikortasuneko agente kontratuko ditu, baina, salbuespen gisa, onartu egingo ditu eskatutako hizkuntza gaitasuna ez duten agenteak ere, euskaraz gai diren lan-poltsako hautagaiak baino zabalagoak omen direlako langile beharrak. Hori aski ez eta bere arauak ezartzea ahaztu zaio, bere bi jardueratan gaztelania hutsezko hizkuntza paisaia erabili baitu (toldozainen izendapena eta udako ikuskizunetarako etxolak). Era berean, ekimen pribatu batek erdaretan bakarrik errotulaturako panelez josi ditu udal farolak berriro ere, eta, dakigula, udalak ez du deus ere egin hori saihesteko.

Donostiako Udalak erakutsi beharko luke arauak ezartzeko eta euskararen normalizazioaren abiaduran bizkortzeko beste kemen bat. Pentsatu nahi dut aukera egongo dela 2018-2022 plan horri moldaketaren bat sartzeko, abian delarik ere, XX. mendekoa baino XXI. mendekoa izan dadin. ●

 ARGIA

ZURE JENDEA
HEDABIDEAK
IRAGARKIA



Jarri zure
publizitatea
hemen!

publiz@argia.eus
943 37 15 45
argia.eus/tarifak